

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

HONDARRIBIKO UDALA

*Kultura arloko dirulaguntzak emateko deialdia - 2025*

Dirulaguntzak Arautzeko Ordenantza eta honi dagozkion eranskinak behin betiko onartuak izan zirenez, zeinak, 2020ko uztailaren 29an 143 zenbakia duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak izan baitziren. Alkatetza-Lehendakaritza honek, hauxe

EBATZI DU

*Lehenengo.* Kultura arloan lehia erregimenez dirulaguntzak emateko deialdia zabaltzea. Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte hondarribiarren onurarako kultura eta jaietako jarduerak antolatzen dituzten irabazizko helbururik gabeko eta Hondarribian errotutako pertsona edo entitateak, baldin eta indarrean dagoen araudiaren arabera eratu eta dagozkien erregistroetan inskribatuta badaude. Dirulaguntzak Arautzen dituen Ordenantzen I. eranskinari dagozkion Oinarrien arabera izango da.

*Bigarren.* Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte hondarribiarren onurarako kultura eta jaietako jarduerak antolatzen dituzten irabazizko helbururik gabeko pertsona fisiko eta/edo Hondarribian errotutako entitateek, baldin eta indarrean dagoen araudiaren arabera eratu eta dagozkien erregistroetan inskribatuta badaude.

Salbuespena eginez, kultura departamentuaren proposamenez horrela erabakitzen den kasuetan, Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte Hondarribitik kanpo errotutako irabazizko helbururik gabeko pertsona fisiko eta/edo entitateek ere, baldin eta beren jardueraren zati nabarmena udalerrri honetan egiten badute edo hiriarentzat interesgarritzat jotzen bada.

Aurkeztutako egitarauak eta proiektu puntualak ekonomikoki bideragarriak izan beharko dute, eta bideragarritasun hori egiaztatu beharko dute gastu eta dirulaguntzen aurrekontu zehatza aurkeztuta.

Berdintasunerako klausula: Dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duenean ezarritako oinarriak eta eginkizunak. Baita 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko, ezarritakoak ere.

Dokumentazio guztiak, publikitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeke edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol eta genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

*Hirugarren.* Emango diren dirulaguntzen kopurua 42.000,00 €koa izango da gehienez, 1 0206.481.01.334.00 2025 (6267 kodea) diru-sailaren gain.

*Laugarren.* Eskabideak aurkezteko epea, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzen den biharamunetik hasi eta hilabetekoa da.

AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

*Convocatoria de subvenciones del área de Cultura - 2025*

Aprobada definitivamente la Ordenanza Municipal Reguladora de Subvenciones y sus correspondientes anexos, las cuales fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa número 143, de 29 de julio de 2020, esta Alcaldía-Presidencia,

RESUELVE

*Primero.* Proceder a la Convocatoria en régimen de concurrencia competitiva de las subvenciones del departamento de Cultura, destinadas a paliar el déficit económico ocasionado por el desarrollo y realización de programas anuales o de acciones puntuales, realizadas durante el año en curso, por entidades sin ánimo de lucro radicadas en Hondarribia, de conformidad con las Bases correspondientes al anexo I de la citada Ordenanza Reguladora de Subvenciones.

*Segundo.* Podrán optar a estas ayudas las personas físicas y/o entidades sin ánimo de lucro radicadas en Hondarribia que, estando constituidas con arreglo a la legislación vigente e inscritas en los registros correspondientes, proyecten realizar programas o actividades culturales y festivas que sean de interés para los/as hondarribiarras.

Excepcionalmente, en los casos que así se determine, a propuesta del departamento de Cultura, podrán acceder a las ayudas las personas físicas y/o entidades sin ánimo de lucro radicadas fuera de Hondarribia, cuando una parte apreciable de su actividad se desarrolle dentro del ámbito del municipio o se considere de interés para el mismo.

Los programas o proyectos puntuales presentados, deberán ser viables económicamente, acreditando dicha viabilidad por medio de un presupuesto de gastos e ingresos ajustado.

Cláusula de igualdad: La entidad beneficiaria de la subvención deberá dar cumplimiento a los principios y obligaciones establecidas en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres; y Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de Mujeres y Hombres.

Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipo sexistas, y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidad de género.

*Tercero.* El importe máximo de las subvenciones a conceder asciende a la cantidad de 42.000,00 €, con cargo a la partida presupuestaria 1 0206.481.01.334.00 2025 (código 6267).

*Cuarto.* El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, contado a partir del día siguiente a la publicación del anuncio de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

**Bosgarren.** Eskabideak elektronikoki Hondarribiko Udalaren web orriko Sarrera Erregistroren bitartez aurkeztu ahalko dira. Horrez gain Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan zehaztutako beste edozein bidetatik.

Bide elektronikoa erabili beharko dute horretara behartuta dauden subjektuek (39/2015 legearen 14. artikulua): besteak beste, pertsona juridikoek eta izaera juridikorik gabeko erakundeek. BAZen bulegoaren arreta zerbitzurako ordutegia: astelehenetik ostegunera 8:30-14:00/16:00-18:00, ostiraletan 8:30-14:00.

Eskabidearekin batera Ordenantzaren I. eranskinaren 4. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Eskaera orria, Ordenantza eta aipatutako I. eranskina [www.hondarribia.eus/eu/izapideak-laguntzak-dirulaguntzak](http://www.hondarribia.eus/eu/izapideak-laguntzak-dirulaguntzak) helbidean eskuragarri izango dira.

**Seigarren.** Kultura departamentuko teknikariak aztertuko ditu eskaerak eta Kultura Batzordeak emango ditu horien proposamenak, kide anitzeko organo gisa, eta ebazteko eskumena duen organori, Alkatetzari, aurkeztuko diote. Ebazpen horrekin amaituko da administrazio bidea.

**Zazpigarren.** Eskabideen balorazioa Ordenantzaren I. eranskinaren 6. puntuan zehaztutako irizpideen arabera egingo da.

**Zortzigarren.** Ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez, bi hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita, eta hori, eskaera egin duten interesatuei jakinarazpena jasotzeko aipatutako helbidean pertsonalki emanda (jaso duelako agiria sinatuta) edo telematikoki.

**Bederatzigarren.** Eskaera berritzeko aukerarik ez du izango.

**Hamargarren.** Gainontzeko guztian, indarrean dagoen araudiak xedatutakoa beteko da, hau izanik: Dirulaguntzak Ematea Arazten duen Udal Ordenantza eta bere I. eranskina; azaroaren 17ko 38/2003 Legea; Dirulaguntzen Orokorra eta gainerako araudi baterakoak.

Hondarribia, 2025eko maiatzaren 7a.—Igor Enparan Araneta,  
alkatea. (3480)

**Quinto.** Las solicitudes deberán presentarse por vía electrónica en el Registro de Entrada de la página web del Ayuntamiento de Hondarribia. También podrán presentarse por el resto de vías detalladas en el artículo 16 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La vía electrónica será el medio a utilizar por los sujetos obligados a ello por el artículo 14 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, como son las personas jurídicas y las entidades sin personalidad jurídica, entre otros. Horario de atención al servicio de la oficina del BAZ: de lunes a jueves de 8:30 a 14:00/16:00 a 18:00, viernes de 8:30 a 14:00.

Las solicitudes deberán incluir la documentación señalada en el artículo 4 del anexo I de la Ordenanza, disponible, junto con los formularios de solicitud, en la dirección [www.hondarribia.eus/es/tramites-ayudas-subsuenciones](http://www.hondarribia.eus/es/tramites-ayudas-subsuenciones).

**Sexto.** Las solicitudes serán examinadas por el técnico del departamento de Cultura, y será la Comisión de Cultura, como órgano colegiado, quien efectuará las correspondientes propuestas, elevándolas a la Alcaldía, órgano competente para su resolución. La resolución pondrá fin a la vía administrativa.

**Séptimo.** La valoración de las solicitudes se hará en base a los criterios indicados en el punto 6 del anexo I de la Ordenanza.

**Octavo.** El plazo máximo para la resolución y notificación expresa será de dos meses, contado desde la finalización del plazo de presentación de instancias y se notificará a los/as interesados/as mediante entrega personal con acuse de recibo o vía telemática.

**Noveno.** No habrá posibilidad de reformulación de solicitudes.

**Décimo.** En todo lo demás se estará a lo dispuesto en la normativa vigente; Ordenanza Municipal Reguladora de Subvenciones en vigor y su anexo I; la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y demás normativa concordante.

Hondarribia, a 7 de mayo de 2025.—El alcalde, Igor Enparan  
Araneta. (3480)